

JOSEBA GIL: KARMAKROSETIK ANIMALARIORA

·Zuek bai jakin!· Martin Begiristain ·Erreportajea: Zintzo-Mintzoren birsortzea ·Izerdi  
patsetan: Alberto Alejandro ·Boteprontoan: Jon Cadierno

# Herri Aldizkaria Otamotz

2010eko  
ekaina  
158. alea



Herri Aldizkaria  
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,  
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...  
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN  
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!



# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK  
PREBENTZIOA  
DU HELBURU**




KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com



## IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,  
INGURUMEN ETA  
LAN-ARRISKUEN ARLOKO  
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09  
e-mail: irnasa@facilnet.net  
ZUMARRAGA



**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik

## aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**  
Joseba Gil: Karmakrosetik Animalariora
- 09 Argazki zaharra**
- 11 Gure gomendioa**
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**  
Realaren igoerak poztu al zaitu?  
Ospatu al duzu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 Klik eta klik**  
Jon Mikel Intsausti
- 18 Zuek bai jakin!**  
Martin Begiristain
- 20 Erreportajea**  
Baskoniari ACB liga eman zion baloia Urretxun dago
- 22 Erreportajea**  
Zintzo-Mintzoren birsortzea
- 24 Izerdi patsetan**  
Alberto Alejandro
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**  
Jon Cadierno



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.



# Joseba Gil: Karmakrosetik Animalariora

*Joseba Gil zumarragarrak antzerki ekoizle onenari Max saria jaso zuen maiatzean Madrilgo Reina Sofia museoan. Gilek Animalario taldean lan egiten du. Konpainia honek sari ia guztiak irabazi ditu 'Urtain' lanarekin, baina harrotasunez gogoratzen du bere lehen pausoak Urretxu eta Zumarragako Karmadros antzerki taldean eman zituela.*

Joseba Gil, Alberto San Juan aktorearekin, Max Saria eskuan duela.



## **Aurkeztu zeure burua, mesedez.**

Zumarragan jaio nintzen duela 46 urte. Legazpi auzunekoa naiz. Nire aitaren izena Joaquin Gil da, baina Joaquin Telleria izenaz ezagunagoa da. Amaren izena Manuela Aldama da eta Ormaiztegiakoa da. Aita donostiarra da, baina Zumarragako familia batek adoptatu zuen. Bost anaia-arreba ginen, baina bat 24 urterekin hil zen. Zumarragako langile familia arrunta gara. Aitak Orbegozon lan egiten zuen. Modelista zen. Ez zen sindikalista, baina protesta zalea zen eta lantegitik behin baino gehiagotan bidali zuten. Frankisten zerrenda beltzetan zegoenez, inon ez zioten lanik eman nahi. Hori dela eta, azkenean taxi-gidari lanean hasi zen. Zesta punta jokalaria ere izan zen. Markinan entrenatzen zuen eta nahiko ona zen. Mallorcan jokatu zuen eta Filipinetara edo Miamira joateko aukera izan zuen, baina Manoli



Aldama Gorrotxategik bera ez zihoala inora esan zion.

### **Aita adoptatua izan zela esan duzu.**

Bere ama Madrildik Donostiara oporretara etortzen zen familia batekoa zen. Semea Eitzagako Telleria familiari eman zion. Ama biologikoa ezagutzeko aukera izan zuen eta bi familiak ondo moldatu izan dira beti. Hala, nik hiru amona izan ditut. Hori guztia dela eta, aita Telleria abizenaz ezaguna da eta gu Gil gara.

### **Non egin zenituen ikasketak?**

Anaia-arrebok La Sallen ikasi genuen eta, gurasoak euskaldunak diren arren, euskara galdu egin dut ia. Garai hartan ikastolara joan ez ginen askok euskara galdu egin genuen. Izan ere, lagun gehienak erdaldunak ziren eta gainera 24 urte daramatzat Zumarragatik kanpo. Noizean behin itzultzen naiz: Santa Lutzitan, Gabonetan...

### **Nola oroitzen duzu haurtzaroa?**

Nire adineko gainontzekoek bezala: jostailu gutxi genituen eta kalera irteten ginen jolastera. La Salleko patioan futbolearen jokatzeko genuen, Legazpi auzuneko lorategian korrika egiten genuen... Garai hartan ez zuten belarra mozten eta gu baino altuagoa zen. Kanean jolasteko genuenez, garai hartan 7-8 urterekin jada haurrok koadrila antzekoa genuen. Urte batzuk aurrerago, Goiko-Txabolara joaten ginen, karabinarekin txoritxoak akabatzen genituen... Garai hartako haurtzaroa oso aktiboa zen.

### **Zer ikasketa egin zenituen?**

Lanbide Heziketa ikasi nuen La Sallen bertan. 19 urte eman nituen bertan. Han nengoela, 15 nituenean-edo, ikasle batzuek antzerki ikuskizun bat prestatu genuen. Lan oso aldarrikatzailea izan

zen: sozialki eta politikoki bortitza. Halako gaiekiko interesa bizitzaren garai jakin batean pizten da eta orduantxe egin genuen. Antzerkia egiten hasi ginen gustatu egin zitzaigun eta lan bat bestearen atzetik egin genuen. Taldeak Karmakros zuen izena. Denborarekin, kide batzuek utzi egin zuten eta beste batzuk 80ko hamarkadako heroina zikinak eraman zituen. Gutxi batzuentzat antzerkia lanbidea bilakatu da. Nik Ingeniaritza Elektronikoko Industrialak ikasi

*“Aktore amateur gisa hasi nintzen, baina antzerki astearen antolaketaren eraginez programazio lanera jo nuen”*

nuen, baina egun antzerki enpresa bateko kudeatzailea eta ekoizlea naiz.

### **Karmakros La Salle-Legazpi ikastetxean jaio zen, baina egun bi herriotako antzerki taldea da.**

Hala da. Nik ez dut dagoeneko loturarik, baina taldeak lanean jarraitzen du. Juan Luis Escudero eta Oskar Cadierno gelditu ziren eta tailerrak antolatzen jarraitu zuten. Elektronika industrialean lan egin nuen urteetan antzerki aste bat programatzen genuela oroitzen dut. Hasieran gauza txikia zen, baina nazio mailan garrantzia lortu zuen. Hobby moduan hasi nintzen, baina pixkanaka antzerkiak nire bizitzan gero eta garrantzia handiagoa hartu zuen. Egia esan, ez

dakit zergatik ikasi nuen ingeniarietza. 12-13 urterekin ez duzu oso argi zer egin nahi duzun: bide bat har-tzen duzu, baina bizitzak beste toki batera eramaten zaitu. Aktore amateur gisa hasi nintzen, baina antzerki astearen antolaketaren eraginez programazio lanera jo nuen.

### **Orain ekoizlea zara. Nola eman zenuen pauso hori?**

Programatzaile lanari esker jende asko ezagutu nuen eta antzerki munduan murgildu nintzen. Garai hartan Euskadin konpainia profesional oso indartsua zegoen: Geroa. Juanlu Escudero bertan ari zen. Ekoizpen bulegoa ireki behar zutela eta nik bertan lan egitea nahi zutela esateko deitu zidaten. Ez nuen birritan pentsatu. Hurrengo egunean makina-erreminta enpresara joan eta lana utzi behar nuela esan nien. Antzerki munduan lan egin behar nuela. Gaztetan hartzen diren erabakiak dira... Orain edo sekula ere ez!

### **Antzerkiak liluratu egin zintuen.**

Bizitzeko era bat da. Ordu asko eskaini behar zaizkionez, lanbidea da, baina gogoko tokian aldaparik ez. Durangora Geroarekin lan egitera joan nintzenetik, ez dut atsedunik izan. Une zailak bizi izan ditut, baina ez naiz inondik inora ere damu hartutako erabakiaz. Egun, adibidez, sekulako talentua duten lankideak ditut Animalarion.

### **Zer dohain behar ditu ekoizle on batek?**

Taldea egiten jakin behar da. Gainontzekoen iritzia kontuan izan behar da. Ekoizpenaren eta kudeaketaren munduan, alor zehatza ezagutzeaz gain, besteei entzuten eta lankide onak



aukeratzen jakin behar da. Guztiak partaide sentitzea lortu behar da. Antzerkian adostasuna eta taldean lan egitea funtsezkoak dira. Egitura piramidalak txarrak dira. 40 urtetan frankismoa pairatu genuen eta, zoritxarrez, toki askotan egoera ez da oraindik aldatu.

**Animalarion behar bezala lan egiten duzuela dirudi: sari asko irabazten dituzue.**

Jende askok zorrea aipatzen du eta gure aktoreak telebistan ateratzen direla esaten digute, baina horren atzean lan handia dago. Urte asko daramatza-

*“Gizakiaz eta bere kontraesanez hitz egiten dugu, gertutasunez, mundu guztiak mezua jaso dezan”*

gu lanean eta hasi ginenean gure aktoreak ez ziren horren ezagunak. Eguneroko lanak, gauzak maitasunez egiteak, pazientziak eta zorrotasunak fruitua ematen dute. Dena den, beste askok ere gogor lan egin dute eta ez dute arrakastarik izan. Antzerki munduan gaur bikain zaude eta bihar zure sormenak behera egin dezake eta ikuslearen artean arrakasta ez duen ikuskizuna egin dezakezu. Dena den, egia da zaletu talde fidela dugula. Gizakiaz eta bere kontradikzioez hitz egiten dugu, gertutasunez, mundu guztiak mezua jaso dezan. Aznarren alabaren ezkon-

tzari buruzko lana egin genuenetik, jendeak antzokiak betetzen ditu eta hunkituta irteten da. Ondoren Sari Nazionala irabazi genuen *Hamelin* lanarekin, inmigrazioari buruzko *Argelino* egin genuen, iraultzari buruzko *Marat Sade*... Orain *Urtain* heldu da: garai batean ospetsua izan ondoren, hondoa jo duen gizakia. Panfleto politikoak ez egiten saiatzen gara, nahiz eta gorriak, masoiak eta beste gauza asko garela esaten duten.

**Kritikengatik minduta al zaudete?**

Norbaitek bere iritzia ematen duenean, Willy Toledok oraingoan egin duen bezala, ados egon daiteke edo ez; baina ezin zaio iritzia emateko eskubidea eragotzi. Zenbaitzuek iritzi askatasuna defendatzen dute, baina besteek hitz egiten dutenean zentsuratu egiten dituzte. Norberaren teilatura harrika ari-tzea da, baina ondo ezagutzen ditugu eta ez gaitu asko kezkatzen. Del Castillo ministro ohiarekin, Jimenez Losantosekin... makina bat hika-mika izan ditugu. Polemika nahi duenak sortu dezala. Guk sekula ez diogu inori bere iritzia emateko eskubidea ukatuko.

**Urtain al da zuen lanik kuttunena?**

Guztietaz maiteminduta gaude, baina jende askok ez zuen espero Urtainen inguruko lan batek halako arrakasta izatea. Egia esan, bere bizitza oso oparoa da. Pertsonaiak liluratu egin gintuen eta guztiok dena eman dugu. Hori ikuskizunetan nabari da. Gehienak ez ziren Urtainez gogoratzen, baina beraz hitz egitea mingarria den arren, bere giza-mamia berreskuratu dugu. Omenaldia eskaini diogu eta horrek gustura utzi gaitu. Dena den, lan guztietan dugun onena ematen dugu.

**Madrilen bizi zara.**

Madril eta Brasil artean. Salvador de Bahian landetxe bat dut eta zineak ireki nahi ditut. Oporretan joan nintzen eta toki hura asko gustatu zitzaidan. Etxe asko zeuden salgai, salneurriak galdetu nituen eta oso merkeak zirela ikusi nuen. Diru apur bat nuen aurreztuta eta, Santanderrek edo BBVak kendu baino, nahiago izan nuen Brasilen inbertitu. Urtero hilabete batzuk ematen ditut bertan eta hainbat ekitaldi antolatzen ditut. Esan bezala, zine batzuk irekitzeko lana egiten ari naiz Brasilgo enpresa batekin batera. Zinemaldi bat antolatu eta esko-

*“Urtainez hitz egitea mingarria da, baina bere giza-mamia berreskuratu dugu. Omenaldia eskaini diogu”*

lekin lan egin behar dugu. Gilberto Gil Kultura ministroarekin izan ginen bertakoei zinearen bitartez laguntzeko. Proiektatu genituen lehen filmak Chaplinenak izan ziren eta haurrak euren hortz zuriak agerian zituztela barre egiten ikustea oso pozgarria izan zen. Ezagutza lortu eta telebista, erlijioa eta dogmak baztertzen dituen heinean, jendea askeagoa izango da.

**Zumarragan jaio zinen, baina Madrilen eta Brasilen bizi zara. Toki oso ezberdinak dira.**

Horrek asko aberasten duela uste dut. Etxetik zenbat eta gehiago atera, beste



Joseba, hondartzan bere anaia-arrebekin.



kultura, hizkuntza eta bizimodu batzuk ezagutzeko orduan eta gogo handiagoa izango dugu. Tolerante hitza ez dut atsegin. Nahiago dut ondokoa ulertzeaz eta bere tokian jartzen jakiteaz hitz egin. Hori da, azken finean, antzerkian egiten dena. Ondokoaren tokian jartzeko gaitasuna izanez gero, askoz ere errazagoa da bera ulertzea. Ulertzen saiatzea tolerantzea baino askoz ere erakargarriagoa iruditzen zait.

### **Zer moduz moldatzen da zumarragar bat Madrilen?**

Hemen aisialdirako eta jakin-mina asetzeko eskaintza zabalagoa dago, baina egun herriek ere eskaintza zabala dute. Anaia-arrebekin eta lagunekin horri buruz eztabaidatzen dut: ez dut ulertzen, adibidez, zergatik ez duten oraindik ezagutzen Ibarrolaren basoa. Lan asko dutela esaten didate, baina autoarekin egun batean Santillana del Mar bisitatu daiteke eta hurrengoan Zuberoa. Jendea nagituta bizi dela uste

Karmakros taldearekin.



dut. Aktiboa izaten saiatu behar da: etxetik irten eta gauza berriak ezagutu. Gaur egun, hori ez da batere garestia. Madril, Salvador de Bahia, Rio de Janeiro, Sao Paulo eta Mexiko D.F.

*“Hiriek alternatiba asko eskaintzen dituzte, baina beraietan bizitzea Urretxu edo Zumarragan bizitzea baino gogorragoa da”*

bezalako hiriek alternatiba asko eskaintzen dituzte, baina egia da ere toki horietan bizitzea Urretxu edo

Zumarragan bizitzea baino gogorragoa ere badela. Etxetik irteten zaren bakoitzean edozer gauzagaratik ordaindu egin behar duzu eta dena zailagoa da. Izaera urbanoa izan behar da bizimodu hori gustukoa izateko. Madrilera heldu nintzenean egin nuen lehen gauza autoa saltzea izan zen. Zertarako nahi dut autoa Madrilen? Ez daukat non sartu... Mundu guztia ondo hartzen duen hiria da eta nahiko kosmopolita da, herri itxura duen arren. Egia da ere politikoki Madrilgo erkidegoko eta Udaleko gobernuak beldurgarriak direla. Oraindik frankista kutsuko jendea dago, baina horri jaramonik egiten ez badiozu, Madril hiri irekia da. Gainera, estatu mailako zine, antzerki eta telebista ekoizpena bertan kontzentratzen da. Zumarraga, Donostia edo Bilbotik antzerkia egitea zailagoa da.



Brasilén duen etxea.



Animalario antzerki taldeko lagunekin.



### **Nola ikusten dituzu Zumarraga eta Urretxu?**

Joan nintzenean baino aspergarriagoak direla iruditzen zait. Zahartzen garen heinean, gorriak izan arren, kontserbadoreak bihurtzen gara. Ez diot zentzu politikoan, dugunari eusteaz ari naiz. Zumarragara oso gustura joaten naiz eta senitartekoak eta lagunak ikusteak erlaxatu egiten nau, baina ostiraletan Tiffany's tabernara joateko asmoarekin joaten naiz eta Tiffany's aspaldi itxi zuten. Bestelakoan, herria ondo zainduta dagoela iruditzen zait eta jendea betiko moduan ikusten dut: poteak hartzen, Antio eta Belokitik paseatzen eta herri bati dagokion bizimodua egiten.

### **Familiarik ba al duzu?**

Alde batetik bestera nabil eta horretarako astirik ere ez dut.

### **Zer egiten duzu lanetik kanpo?**

Bizikletan asko ibiltzen naiz. Bilbon bizi nintzenean sarritan joaten nintzen inguruko mendietara bizikletarekin. Lagunekin irtetea ere asko gustatzen zait. Madril horretarako oso aproposa da. Bestalde, irakurtzea, kontzertuetara, zinera eta antzerkira joatea... asko gustatzen zait. Ez dut zine komertziala atsegin. *Avatar* ikustera ez naiz joan, adibidez. Autore zinea eta soziala nahiago ditut. Irakurtzeari dagokionez, denetik irakurtzen dut: nobela, entsegua... Bidaiatu behar dudak bakoitzean male-

tan liburuak eramaten ditut. Nintendo

*“Zumarragara oso gustura joaten naiz eta senitartekoak eta lagunak ikusteak erlaxatu egiten nau”*

konsola ere eramaten dut, *Brain Training*-ean aritzeko. Zahartzen ari gara, badakizu... Brasilen nagoenean, berriz, bizimodu oso sanoa eramaten dut: bizikletan eta piraguan ibili, paseatu...



1942

Zumarragako Luistarren ikuskizun taldea

Zutik: Martin Zenekorta, Andoni Sasianbarrena, Sekun Apaolaza, Jose Mari Arizmendi, Anjel Hernandez, Jose Inazio Etxeberria, Teodoro Lasa, Matias Ormaetxea eta Jose Mari Inaraja. Makurtuta: Juanito Cordero, Pedro Elgarresta, On Anastasio Arrinda, Felix Mendia, Eugenio Garin eta Luis Mari Garin.





# UROLA

## ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA

# MURUA

## Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

centro óptico  
**Javier Arratibel**  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

## Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren  
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48  
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41  
Urretxu-Zumarraga  
www.egumendi.com  
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi  
duzun moduan aterako ditugu:  
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

# BIONA

## AROTEGIA

### Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU



# SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO  
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU  
ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA  
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)  
943 72 41 00  
administracion1@premark.com

# PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA

☎ 943 72 13 70

Fax: 943 03 75 68



- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntaketa eta Instalazioak  
**HERCE**  
Enpresa mantenua

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones  
**MENDIOLA**

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@mendiola.com  
www.cmendiola.com

# asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN  
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu

943 72 59 22

659 67 89 79



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU

☎ 943 72 25 13

**TABERNA**  
*Gaurretu*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



alejandra albisua

☎ 943 72 52 22

Soraluze, 6 - Zumarraga



RESTOBAR

Bidezar 17-ZUMARRAGA-943 53 46 85



MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga  
Tel. 943 72 05 62

# IKER

## SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU  
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE  
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - ONATI

# Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net





## XXVI. San Telmo literatur lehiaketa 2009

### Hainbat egile

Udak ekarri zidan liburu hau, Zumaia alde-tik. Barruan 2009. urteko literatur lehiaketan saritutako lanak datoz: ipuinak, olerkiak, eta bertsoak. Gazte hauen lanak irakurrita, Gabriel Korta poetak esan zuena gogoratu dut: “gazteok, zuek zarete zuen bihotzen jabe bakarrak”. Eta hala da, gazte bakoitzak idatzi du bere egia eta nork jar lezake egia hori zalantzan? Bihotzak eta adimenak eman ahala idatzitakoak, gogoz eta arretaz

idazten denak bere lekua hartzen du eta erakusten du bere mamia, lotsarik gabe, beldurrik gabe, aztertu eta ulertuko duenaren zain dagoen flyschak bezala. Zumaia-ko olagarro gazte hauen tintak paperean ezarri ditu haien sentimendu sakonak. Bai irakurgai atseginak hauek! Neska-mutil hauen kezkek eta gureak oso antzekoak dira. Zeuk irakur eta zeuk esan. On egin!

*Iñaki Bastarrika*


## Backbone ritmo

### Atom Rhumba

Egunkarietan denek gorai-patzen zuten Atom Rhumba taldea. Jada ibilbide bat egin zuen arren, ezezaguna zen niretzako orain zazpi bat urte. *Backbone ritmo* (2003. Munster) diskari buruz ari ziren. Bikaina zela bere osotasunean. Eta *Gone* abestia entzun nuen irratan. Eta neure buruari galdetu? “Zer ote da, hau?”. Eta hura zen Atom Rhumba. Kontzertua non ematen zuten enteratu, eta Ondarroarantz abiatu ginen lau

lagun; hango Kafe Antzokira. Harrituta geratu ginen. Rocka zen hura, baina betikoa izan beharrean desberdina. Rock-aren betiko elementuak bereganatzen zituena, bai, baina modu oso erakargarrian nahasten zituena. Horregatik da izugarri aberatsa jada mitikoa den disko hori. Countrya, bluesa, punka, funkia... Nortasun handiarekin eta taula gainean fedearekin defendatutakoa.

*Igor Susaeta*



## Anvil! El sueño de una banda de rock

### Sacha Gervasi

Arrakasta lortzeko zorian egon zen heavy metal talde baten eta bere betiko ametsari uko egin ez zioten musikari batzuen istorioa kontatzen du dokumental honek. Gure artean ekainean estreinatuko da. Hainbat sari jaso ditu. Anvil 80ko hamarkadan Kanadan sortutako rock taldea da. Abesti arrakastatsuren bat izan zuten, baina ezin izan zuten ibilbide arrakastatsua izan. Ez zuten amore eman eta konposatzen, grabatzen eta kon-

tzertuak ematen jarraitu zuten. Dokumentalak taldekideen ilusioari buruz hitzegiten du bereziki. Taldeko musikariak duintasuna eta patetismoaren artean dagoen lerro mehe horretan dantzan islatzen ditu zuzendariak, drama eta komizitatearen arteko nahasketa orekatuan. Laguntasuna eta itxaropenari so egiten dion lan azpimarragarria eskaintzen zaigu.


*ButaK 21 zineklub taldea*





## egurra partitzen

Jon Torner  
Jon Ormazabal



## Gozatu mundiala

Oporrak eta festak gertu direla eta, hilabete honetako *Egurra partitzen* Rodolfo Aresen eta bere web orri berri eta eredugarriaren laguntzailentzat opari modukoa izango da. Ez dakigu legala edo ilegala ote den, baina hurrengo egunetan *La Rojari* sartuko dizkioten gol guzti-guztiak ospatuko ditugu, bizia bertan joango baltzaigu bezala. Gure inguruko zelatariak bazarete behintzat, ez izan dudarik, benetako *Rojak*, hau da, Txilek, Casillasen atea zulatzen duenean gu izango gara saltoka eta dantzan dabilzan horietatik bi behintzat. Gainera Realeko Bravogatik egiten dugula esateko aukera izango dugu. Bai badakigu, gure literatura irakasle jakintsu batek behin esan zigun bezala, *hortelanoaren txakurak* bezalakoak garela, baina gure koloreekin parte hartzen uzten ez diguten bitartean ez zaigu beste bizi pozik geratzen. Inbidia puntu handi bat ere badago gure barruan, zergatik

ukatu, baina ez bakarrik espainiarrek sekulako taldea daukazuelako. Guk Mundialeko partidak zuek bizi dituzuen zirrarekin bizi nahi ditugu, guk ere eguneroko arazoak ahaztu nahi ditugu baloi bati ostikoak nola jotzen dizkioten ikusiz eta zergatik ez, guk ere gure *Manolo el del bombo partikularra* izan nahi dugu eta Musti peñakoek antolatutako casting erraldoian aukeratu genuen gure hautagaia. Krisi garai hauetan denon hobe beharrez ere arituko gara *La furiarren* aurka, izan ere, erauntsi mediatiko izugarriaz gain, gure poltsiko zulatuetatik irtengo da jadanik ongi aberatsak diren horiek are eta aberatsagoak egingo dituen gainsaria, Fernando Alonso patriotak bere zergak Suitzan ordaintzen dituen bitartean. Dena dela, aurreko batean ere esan genizuen gu txikiak eta eskasak garela eta Eitzara pasatu den *traidorearekin* –guretzat pribilegiatua– guk bai hartu genuela gozatu mundiala.




## Realaren igoerak poztu al zaitu?

### Ospatu al duzu?



Jose Roman



Irrika hori nuen, bai. Gainera, behar bezala lortu zuen Lehen Mailara igotzea: partida erabakigarria ondo irabazita. Datorren urtean zer? Ikusiko dugu, baina ilusio honekin, lehenengoan artera itzul gaitezkeela uste dut.

Mariano Sanz



Behar bezala ospatu dugu, nola ez ba! Oso une polita izan zen. Izan ere, sei urteko biloba etorri zitzaidan "aitona, aitona, Reala Lehen Mailara igo da!" esanez. Eurak ere hasi dira konturatzen talde honek zer nolako sentimendua eragiten duen herritarren artean.

Izaskun Elgea



Etxean ez gara Realekoak... Ejem... Athleticekoak gara. Dena den, Realaren igoerak asko poztu gaitu. Guk ere ospatu dugu, baina Lehen Mailara igotze hutsagatik ospakizun handiegia antolatu direla uste dut.

Lidia Sanchez



Askok poztu gara, nahiz eta ez garen Realekoak. Nire senarra Real Madrilekoa da, baina bera ere asko poztu da. Izan ere, bere taldeak Realaren aurka jokatzeko nahi du. Are gehiago esango dut: Realak Celtaren aurka jokatuako partida ikusi genuen. Bestalde, ospakizunak ez zaizkit gehiegizkoak irudituko.



## Gaia: Igeri egiten ikasten ari naiz

### Doinua: Ama begira zazu

Kattalin Ibarzabal



Nik igeri egiten  
ez dakit oraingo,  
baina gaur joango naiz  
pizsinara gohoz.

Baina ia ito naiz  
hor dator amatxo,  
eta besarkadu nau  
oso goxo-goxo.

## iritziz iritzi

Josune Zarandona



### Erabakitzeako eskubidea

Denok dugu memoriaren zati batean gordeta, gure bizitza laburbiltzen duten pasarte, istorio eta lekuen zerrenda. Eta horietako bat buruan bueltak dabilkit egunotan. Hilabeteetan hizketagai izan delako, azkenaldian bertara askotan joaten naizelako edo nik zer dakit, santaisabelak ere gerturazten ari direlako agian. Haurtzarokoak dira Antiori buruzko nire lehengo oroitzapenak. Festa giroarekin, algara eta musika doinuarekin lotutakoak gehienak. Baina badu Antiok beste zentzu intimoago bat ere niretzat. Bakarrik egoteko beharra sentitzen dudanean beti aurkitzen dut mundutik ezkutatzeko lekuren bat bertan. Une zailek kentzen didaten sosegua bilatzen dut bertan eta han ematen ditut askotan inorekin konpartitu nahi ez

ditudan momentuak. Eta elizkoia ez naizen arren, aitortu beharra daukat, baselizara sartzen naizenero, barruko freskotasuna azalera itsasten den eran, halako hotzikara batek zeharkatzen didala barrua. Hemen aipatutakoak neure esperientziatik ateratakoak dira, baina ziur naiz zuetako bakoitzak izango dituela bereak. Istorio ezberdinen, bizitza ezberdinen lekuko izan da, da eta izango baita Antio. Baina denoi galdetuta, ondorio berdintsura iritsiko ginelakoan nago: Antio ez da egoteko leku soila, zerbait gehiago da. Eta horregatik, Antio zumarragar guztiona delako eta bakoitzak bere modura sentitzen duelako, herritar guztiok izan beharko genuke, bertan egin nahi denaren gainean erabakitzeako eskubidea.





**ONDO PASA FESTAKI!**

Pagoeta, 4  
943 72 00 26  
urretxu@ikastola.net

Pagoeta, 1  
943 72 59 75

Labeaga, 25  
943 72 21 12  
lizeoa.urretxu@ikastola.net



0 urtetik 18 urtera arteko eskaintza  
Ikastola zabalik 7.15etik 18.30era, uztaila barne

[www.uzikastola.net](http://www.uzikastola.net)









Polonia. Ezkerreko orrialdean: Wrocław (katedraletik) eta Gdansk (Plebania kalea). Eskuineko orrialdean: Wrocław (Rynek plaza eta udaletxea), Zaldikoa Krakoviako plazan, Wrocław (Rynek plazako eraikina), Aleksander Fredoren estatua Wrocław hirian (1956an Lwów hiritik ekarri zuten. Hiri hau gerra aurretik Poloniakoa zen eta egun Ukrainiakoa), Gdansk (Długi Targ kaleko Neptunoren estatua) eta Krakoviako Uniwersytet Jagiellonski unibertsitateko patioa (Poloniako zaharrena eta Europako zaharrenetakoa: 1364koa).

*Jonmikel Intsausti*



# Martin Begiristain: 50 urte Zumarragako bandan

*Martin Begiristain zumarragarrak 50 urte daramatza Zumarragako bandan klarinetea jotzen. Korpus egunean egin zituen urrezko ezteiak. Taldeko musikari beteranoena da eta gazteak eurekin jotzera animatu nahi ditu.*



## **Nolatan zara musika zalea?**

Artiz auzoan bizi ginen eta Santa Lutzi jaietan trikitilariak Txiki tabernan sekulako festa pizten zutela gogoratzen dut. Jende asko etortzen zen jotzera. Ni etxeko leihora ateratzen nintzen entzuteko. Gainera, nire aitak bonbardinoa jotzen zuen Zumarragako eta Beasaingo bandetan. Musika gustatzen zitzaidan eta solfeoa ikasten hasi nintzen Jesus Gonzalez Bastidarekin. Akordeoia jotzen nuen, baina Gonzalez Bastidak bandan jotzea eskaini zidan. Hamahiru giltzako klarinetea eman zidan eta hala hasi nintzen. Klarinetera moldatzea kosta egin zitzaidan, akordeoiaren oso ezberdina baita. Gainera, instrumentu kaxkarra zen eta nire kontura ikasi behar izan nuen. Ordu asko sartu behar dira musikari aparta izateko. Ni arrunta naiz, ez bainuen kontserbatoriora joateko aukerarik izan.

## **Zenbat urterekin hasi zinen musika munduan?**

Sei edo zazpi urte nituen eta nire amak bederatzi urte nituenean erosi zidan lehen akordeoia. Larrinaga etxekoa zela



oroitzen dut. Garai hartan sekulako ahalgina egin behar zen eskusoinua erosteko. Ez nituen akordeoi ikasketak bukatu, garai hartan ez baitzeuden egun bezainbeste akademia.

**Jesus Gonzalez Bastida irakasle gogorra zela diote.**

Niri ere koskorreko ederrak ematen zizkidan lezioa ikasi gabe joaten nintzenean. Garai hartan ez zen egun bezainbeste ikasten eta metodoak egungoen oso ezberdinak ziren. Erabili nuen lehen liburuaren izena gogoratzen dut oraindik: *El solfeo de los solfeos*.

**Bandan sartu zinenekoa ere gogoratzen al duzu?**

15 urte nituen. Bandan egun baino musikari gutxiago ginen: 25 bat. Musika gustuko dudanez, sekula ez diot jotzeari eta taldea aurrera ateratzeko beharrezkoak diren beste lan batzuk egiteari utzi.

**Ohorea izan al zen bandan sartzea?**

Pozgarria izan zen. Lagun koadrila bat ginen eta primeran pasatzen genuen: entseatu, kartetara jokatu, berriketan ibili, afariak egin... Giro ona zegoen. Ni sartu nintzenean kanpoko jende asko zegoen: euren herrietan ikasi zuten jotzen eta lan egitera etorri ziren hona.

**Taldekiderekin bat bereziki gogoratzen al duzu?**

Jesus Gonzalez Arkaia. Flauta jotzen zuen, baina taldea utzi zuen. Egundik Azpeitian bizi da. Hemen gelditu zirenek jotzen jarraitu zuten, baina txandakako lan eguna ezarri zenean jende askok banda utzi zuen: ezin zuten entseuetara joan.

**Garai hartako bakarra al zara?**

Lander Zurdo zuzendaria eta biok gelditzen gara. Bandako aitona naiz. Gazteekin ondo moldatzen naiz, baina euren kasa

Bandako kideak Mordo tabernan, Santa Zezilia egunean. Martin Begiristain ezkerrekoa da.



ibiltzea gustatzen zaie. Dena den, gazteen artean ere denetik dago: batzuk lotsatiak dira, besteak alaiak... Batzuk beldurrez etortzen dira, baina ez dira beldur izan behar. Egia esan, ia denak gazteak dira. Hiruzpalau gara 50 urte baino gehiago ditugunak. Bestalde, lehen ez zegoen emakumezkorik eta egun asko daude. Dena asko aldatu da.

**Beteranoena zarela esan duzu. Zu arduratzen al zara gazteei ongietorria emateaz?**

Guk baino askoz ere gehiago dakite eta... Gu zaharkituak gaude. Euren zeregina gogotsu lan egitea da, baina aktibitate gehiegi dituzte: futbola, saskibaloia, azterketak...

**Beste talderen batean jo al duzu?**

Ez. Ez dut horretarako behar den mailarik.

**Une berezirekin bat gogoratzen al duzu?**

Santa Zezilia eguneko bazkariak, txan-

goak... Lehen denok txangoak egiteko irrikan izaten ginen eta taldekideen arteko harremana estuagoa zen. Egundik beti dago txangora joan nahi ez duen norbait, bakoitzak toki batera joan nahi du... Ez da bandaren kontua, gainontzeko elkarte guztietan berbera gertatzen da.

**Luzaroan jarraitzeko asmoa al duzu?**

Ez dakit. Nekatu arte jarraituko dut. Oraindik ez dut neure burua nekatuta sentitzen, baina dagoeneko urte asko daramatzat eta ez dut inertzia hutsagatik jarraitu nahi. Gainera, gazteei tokia utzi behar zaie. Euren hartu behar dute ardura.


**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Jende berria heltzen den heinean, ondo. Garrantzitsuena lanean saiatuak izatea da, baina batzuk kanpora joaten dira ikastera eta besteek ez dute herrian lana topatzen...



# Baskoniari ACB liga eman zion baloia Urretxun dago

*Ekainaren 15ean Caja Laboral-Baskonia taldeak hirugarren ACB liga irabazi zuen. Ez sinesteko modukoa izan zen: segundo erdiren faltan Fernando San Emeteriok partida berdindu zuen eta, falta egin ziotenez, ondoren sartu zuen jautiketa gehigarriari esker bere taldeak titulua lortu zuen. Azken jautiketa librea egiteko erabili zuen baloia eskuetan izan duen garrantzitsuena da, baina egun ez dago bere esku: Patxi Jarit zumarragarra du. Jarit pilota berari emateko prest da.*



Patxi Jarit, finaleko baloia eskuetan duela.



Patxi Jarit, beste urretxuar eta zumarragar asko bezala, Caja Laboral-Baskonia taldearen jarraitzailea da. “Bartzelonaren aurkako finalaren hirugarren partidarako sarrerak erosi genituen, baina ez genuen uste gasteiztarrek Bartzelonako lehen bi partidak irabaziko zituztenik eta hirugarrena erabakigarria izango zenik”, aitortu du.

San Emeteriok jaurtiketa libre sartzu ondoren, Bartzelonak atzeko murrak atara zuen, Basilek baloia jaurti zuen, uztaiaren jo zuen eta errebotatu egin zuen. Baskonia dagoeneko txapeladuna zen. Jaritek sekulako poza hartu zuen Basile italiarrak kale egin zuela ikusi zuenean eta poza estasi bihurtu zen baloia bere hantetara heltzen ikusi zuenean. “Lehen ilaran geunden eta pilotak gugana errebotatu zuen. Hartu egin nuen eta inguruko guztiek zoriondu egin ninduten. Etxera sekulako altxorra neramala esan zidaten”, oroitzen du.

Aipatu bezala, baloia saskibaloia Baskoniako jokalaria emateko prest dago. Ederki asko daki San Emeteriok erabilitako ehunka piloten artean garrantzitsuena dela. Izan ere, Urretxuko Laket tabernako nagusia kirol zale amorratua da. Hala, tabernako telebista pizten du Baskoniak partida jokatzen duen bakoitzean eta askotan joaten da Buesa Arenara. “Euroligako partidak ikustera joaten naiz batez ere. Gasteizen Europako talde onenak ikusi ditut. Asko gara Buesa Arenara joaten garen urretxuar eta zumarragarrik”, azaldu du.

Azken bisitalditik harribitxi batekin itzuli zen, baina kirolarekin lotutako bere altxor bakarra. “Rod Stewart abeslariaren

Fernando San Emeterio.



kontzertu batean ikusleengana bota zuen futbol baloietako bat hartu nuen”,

*“Baloia hartu nuenean*

*inguruko guztiek*

*zoriondu egin ninduten.*

*Etxera sekulako altxorra*

*neramala esan zidaten”*

gogoratzen du. Eskuetan imanak dituela ikusirik, atezain edo pibot bikaina izan zitekeen. Gehien atsegin duen kirola txirrindularitza da, ordea. Gaztetan txirrindularia izan zen eta bere benjamin mai-

lakoaren Abraham Olanok infantil mailako “lasterketa guztiak” irabazten zituela dio.

Jaritek jubenil mailan utzi zion lehiatze-ari, baina egun ere bizikletan ibiltzen da. Ekainaren 19an Treparriscos proban parte hartu zuen eta uztaiaren Tourra ikustera joango da. “Azken 15 urteetan urtero joan naiz eta oraingoan Tourmalet igotzen saiatu behar dut”, aipatu du.


Txirrindularitza eta saskibaloiaz gain, pilota eta futbola ere atsegin ditu. “Nire emazteak ere pilota gustuko du. Igandero Astelena pilotalekura joaten ginen eta Irujoren eta Xalaren arteko buruz buruko finala pilotalekuan ikusi nuen”. Futbolari dagokionez, duela hamar bat denboralditik hona Realeko bazkidea da. Talde Txuri-Urdina txapeladunorde izan zen denboraldian Anoetako partida “guztiak” ikusi zituen eta Lyonera joan zen Champions League txapelketako final zortzireneko partida ikustera. Mendizorroztako partida tristea ere ikusi zuen. Zorionez, aspaldiko partez, denboraldi honetan Realarekin gozatzeko aukera izan du. “Cadizen izan nintzen eta baita Celtaren aurkako partidaren ere”.

Realeko jokalaria Urretxu eta Zumarragara etorri ziren egunean ere ez zuen kale egin. Zumarragako udal-txera sartu eta jokalaria guztiei berarentzat oso berezia den kamiseta batean sinatzeko eskatu zien: Realaren kamiseta hori bere emazteak eta berak espero duten semearentzat erosi du. San Emeterio ere ez da sinatzeaz libratuko Urretxuko Laket tabernara bere baloiaren eske etortzen bada.



# Zintzo-Mintzoren birsortzea: XXI. mendeko euskara elkarteak

*Apirileko alean Zintzo-Mintzori arre edo so egiteko ordua heldu zaiola azaldu zen. Erabaki bat edo bestea hartzeko elkarteak azken urteotan egindako lanaren eta egungo egoeraren inguruko gogoeta-prozesua burutu du. Ondorioa honakoa izan da: Urretxu eta Zumarragan euskaltzale talde antolatu eta eraginkor baten beharra dago, baina elkartearen fase bat amaitu da. Jendea aro berriari ekiteko prest dago, baina motor berria behar da: zuzendaritza-talde eta parte hartzaile berriak behar dira. Antolatzeko eta egiteko bide berriak urratuko dituzten pertsonak. Hori dela eta, bilera baterako deia luzatu zaio bi herriotako hainbat euskaltzaleri.*





Gogoeta-prozesua bost orduko bi saio-tan egin da, Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean, eta 19 lagunek parte hartu dute. Helburuak lau izan dira: ibilbidearen eta egungo egoeraren inguruko hausnarketa egitea, helburuak eta eragin-eremuak zehaztea, antolamendua aztertzea eta talde-izaera indartzea.

Ibilbideari dagokionez, gauza positiboak eta negatiboak ikusi ziren. Positiboen artean, elkartearen sorrera bera, hasierako ilusioa, aldizkariaren eta atari digitalaren sorrera, euskarazko zine emanaldiak eta kantu afaria aipatu ziren, besteak beste. Negatiboen artean prozesua herren hasi zela onartu zen: sektore askotako jendea zegoen, baina beste asko kanpoan gelditu ziren. Bestalde, hasieran giza harremanak ez zirela gehiegi landu eta giroa ez zela oso egokia ere aipatu zen.

Beste hainbat gauza ere gogoratu ziren: hasieran lantaldeak zeudela eta antolaketa aldatu egin zela, elkartearen gerizpean hainbat lanpostu sortu direla, Zintzo-Mintzok akuilu lana duela, talde-izaera sendotzeko bi ekintza bakarrik egin direla eta beharbada gehiago egi-tea komeni zela...

Ibilbide historikoaren ondorioak hiru ardatzen arabera atera ziren. Bazkideei, diru-iturriari eta egiturari dagokionez, erronketako bat bazkide berriak eta gazteak erakartzea da. Bestalde, bazkideen artean sentsibilizazioa lantzea komeni dela aipatu zen. Izan ere, jendeak ez du konpromiso handiegirik hartu nahi. Horrekin lotuta, antolaketa eredua aldatzeaz ere hitz egin zen.

Finantziazioa, berriz, zama bihurtu dela onartu zen. Batez ere, hedabideen



Euskaltzaleak kantuan,  
1995eko Zumarragako jaietan.

kudeaketa. Euskaldunengan euskaraz hitz egiteko nahia eta kontzientzia sustatu beharra eta horretarako estrategiak zehaztu beharra ere aipatu zen.

Hedabideei eta corpusari dagokionez, herrian hutsune azpimarragarri bat bete dela esan zen, baina etorkizunean hedabideak berrantolatu egin beharko dira eta euren autonomia bultzatu. Aisialdiaz, sentsibilizazioaz eta kultur ekintzez ere hitz egin zen. Hala, kantu afariarekin, kan-

Zuberoara irteera, Beitiaren omenezko mendi martxa, mintzalaguna...

Beste batzuek antolatutako ekintzak euskaraz izan daitezten, ordea, ez da eragin. Gainera, ez da gazteen sentsibilizazioa lantzen asmatu, aisialdi ekintzak antolatzeko jende berririk ez da lortu, salaketa lanik ez da egin eta batzuetan ez da ilusioa transmititzen jakin. Eskaintzen den horretan erabilera aragotzea da gakoa.

Ondorioz, Urretxu eta Zumarragan euskaltzale talde antolatu eta eraginkor baten beharra dagoela aipatu zen. Dagoena birmoldatu beharra dago eta horretarako lehenetsunak definitu eta sektore berriak inplikaturako dituzten zuzendaritza-talde berria eta parte-hartzaile berriak behar dira.

Gogoeta-prozesuan parte hartu zutenek oraindik elkartean lan egin ez duten euskaltzaleen zerrenda osatu zuten eta uztailaren 7an izango den batzar batera gonbidatu dituzte. Bertara proposamen irekia eramango da, jende berriaren inplikazioa lortzeko eta haien ekarpenek atea zabalik izango dituzte.

## *Gogoeta-prozesuan parte hartu zutenek*

### *euskaltzaleen zerrenda*

### *osatu zuten eta batzar*

### *batera gonbidatu dituzte*

dela piztearekin eta bertso eskolaren suspertze ahaleginarekin asmatu dela esan zen. Bestalde, beste elkarte batzuekin batera hainbat ekimen antolatu dira:



# Alberto Alejandro: Urolak eman duen azken harribitxia

*Maiatzeko alean Iker Zabaleta txirrindulariarekin hitz egin genuen eta oraingo honetan goi mailako kirola gertu izan zuen beste lagun bat da protagonista:*

*Alberto Alejandro futbolaria.*

Conquense taldearen zelaian.





Alberto Alejandrok futbolerako dohain bikainak erakutsi zituen umetatik eta Realak jubenil talderako fitxatu zuen. Gol mordoa sartu zituen eta 2001-2002 denboraldia lehen taldearekin osatu zuen, Toshack-en aginduetara. Ez zuen asko jokatzetik izan eta hurrengo denboraldian talde txuri-urdina utzi zuen. Orduetik, 2.B mailako hamaika taldetan aritu da. Egun, 3. mailako Beasainen jokatzen du.

### **Nola gogoratzen dituzu baloiari eman zenizkion lehen ostikoak?**

Futbola betidanik gustatzen zait. El Salvador auzoan bizi nintzen, Argixao ondoan. Haurra nintzenean zelaia oraindik belarrezkoa zen eta ez ziguten bertan jolasten uzten. Hori dela eta, goiko zelaira joaten ginen. Dena den, Leturiatarren plazan jokatzen genuen batez ere: jertseak erabiltzen genituen ateak egiteko. Denbora libre guztia futbolearen ematen nuen, gehien gustatzen zitzaidana hori baitzen.

### **Zure lehen taldea Urola izan zen.**

Infantil mailan hasi nintzen Urolan. Ondoren kadete mailako taldean jokatu nuen eta urte batean kadete mailakoan eta jubenil mailakoan aritu nintzen. Ondoren Realarekin fitxatu nuen. Jubenil adineko lehen denboraldia eurekin osatu nuen.

### **Zer esaten zizuten gurasoek?**

Jokatzera animatzen ninduten, baina ez zidaten presionatzen. Futbola denborapasa hutsa zen, Athleticceko ikuskatzaile bat etorri zen arte. Ni fitxatzen saiatu ziren eta orduan aldatu ziren gauzak. Realean gelditzea erabaki nuen: 15 urte nituen eta gurasoek ez zuten horren gaztetan etxetik joatea nahi. Gainera, Urolak Realarekin hitzarmena zuen eta

Bittor Ansorena presidenteak ere Gipuzkoan gelditzea nahi zuen. Ez naiz hartutako erabakiaz damu.

### **Gogoratzen al duzu zein izan zen zu ikustera etorri zen Athleticceko ikuskatzailea?**

Egia esan, ez. Agente batzuk etxera etorri zirela, ordea, gogoratzen dut. Joseba Etxeberriaren aita ere gure etxean izan zen! Bere semeak Athleticcekin fitxatu zuen eta guk gauza bera egitea nahi zuen: han oso gustura egongo nintzela, baldintzak onak zirela, ikasketez arduratzen zirela... esan zigun.

### **Pozik joan al zinen Realera?**

Realekoa naiz eta pozik joan nintzen. Bidaiak astun samarrak ziren, egunero

*“Etxeberriaren aita gure etxean izan zen: semeak Athleticcekin fitxatu zuen eta guk gauza bera egitea nahi zuen”*

Donostiara joan eta etxera berandu itzultzen bainintzen. Futbola eta ikasketa uztartzea gogorra izan zen, baina dena aurrera ateratzea lortu nuen.

### **Nola hartu zintuzten jubenil mailako taldearen aldagelan?**

Nire taldean Joseba Llorente, Igor Gabilondo, Jose Jabier Barquero... zeuden: 1979an jaiotako guztiak. Eurek dagoeneko denbora zeramaten Realean, baina ondo hartu ninduten. Gainera, autoan lagunak egin nituen.

Horiekin nuen harremanik estuena, gainontzekoak entrenamenduetan eta partidetan bakarrik ikusten baintuen.

### **Eurekin harremana al duzu oraindik?**

Elkar ikusten dugunean hitz egiten dugu, baina ez dugu bestelako harremanik.

### **Nola gogoratzen duzu Realaren bigarren taldera heldu zinenekoa?**

Ondo hartu ninduten. Sansen jendea helduagoa eta arduratsuagoa da eta dedikazioa handiagoa da.

### **Zeintzuk ziren besteen gainetik zeuden jokalaria?**

Jubenil mailako taldean denok antzerako maila genuen, baina Sansen batzuk nabarmendu egiten ziren. Alonso anaiekin, Sergio Franciscorekin, Labakarekin, Gurrutxagarekin, Aldeondorekin... jokatu nuen. Xabi Alonsok beti asmatzen zuen zer egin behar zen eta baloiari bikain ematen zion.

### **Zenbat denboraldi eman zenituen Sansen?**

Hiru denboraldi osatu nituen eta 60 gol baino gehiago sartu nituen (112 partida jokatu zituen eta 62 gol sartu).

### **Nola hartu zintuzten lehen taldean?**

22 urte nituen eta, lotsatia naizenez, apur bat lotsatuta sartu nintzen aldagelan. Hasieran gazteekin harreman estuagoa nuen, baina guztiekin egin nuen harremana.

### **Zeintzuk arduratzen ziren gazteetat?**

De Pedrok eta Idiakezek ospe txarra zuten, baina aldagelan primerakoak ziren. Etxekoekin oso ondo portatzen ziren. Jauregik eta Aranzabalek ere indar handia zuten aldagelan. Bertakoak gehiago kezkatzen ziren gazteongatik. Kovacevicek ere harreman estua zuen guztiokin, baina beste ba-



tzuek apenas hitz egiten zuten. Luiz Albertok, esaterako.

**Hamarkada hasierako promesa handietako bat izan zinen. Nola gogorazten duzu garai hura?**

Sansen denboraldi ona osatu nuen eta Toshackek lehen taldera igo ninduen. Dena den, nire denboraldiaurrea Clementerekin egin nuela esan beharra dut. Alemaniara joan ginen eta, golen bat sartu nuenez, nirekin pozik zeuden. Denboraldi hartan lehen taldean eta bigarren goan aritu nintzen. Sanseko entrenatzailea Lopez Ufarte zen eta 2.B mailara igotzea lortu genuen.

**Zenbat denbora izan zinen lehen taldean?**

Denboraldi bat osatu nuen eta hurrengo denboraldiaurrea lehen taldearekin egin nuen: Austrian Denoueixekin. Ondoren, ez ninduela aintzat hartzen esan zidan.


**Nolako izan zen lehen taldearekin pasatu zenuen denboraldia?**

Sei partida jokatu nituen lehen taldearekin. Ia hiru hilabete eman nituen lesio-natuta, Angelun jokaturako lagunarteko partida batean egin zidaten sarrera gogor batengatik: peronea hautsi zidaten. Jokalari ororen ametsa Lehen Mailan jokatzeko da eta nirea Realarekin jokatzeko zen. Une haietaz gozatzeko saiatu nintzen eta, egia esan, esperientzia oso polita izan zen.

**Zergatik uste duzu ez zenuela lortu lehen taldean tokia egitea?**

Futbolean pertsona egokiarekin une egokian topo egitea, une egokian gol bat sartzea... oso garrantzitsua da. Lanerako gogoia eta diziplina soberan nituen. Nire ustez egun harrobiko jokalariek hobeto zaintzen dituzte. Nire garaian

'El Mundo Deportivo' egunkariarentzat egindako argazkia.



atzeritar asko zeuden: Kovacevic, Jankauskas, Kokhlov, Demetradze...

*“Egun Realak harrobiko jokalariek hobeto zaintzen ditu. Nire garaian atzeritar asko zeuden”*

Egun etxekoei aukera gehiago ematen zaie.

**Zer pentsatzen duzu zure taldekide ohiak telebistan ikusten dituzunean?**

Gogor lan egin dutela eta hor badaude merezi dutelako dela.

**Reala uztea gogorra izan al zen?**

Gogorra izan zen, ez bainuen espero. Denboraldiaurrean gainontzeko jokalariek bezain ondo entrenatu nuela uste dut, baina hona heldu nintzenean ez nindutela aintzat hartzen esan zidaten. Utzita joatea eskaini zidaten, baina ez nuen nahi izan. Ondoren Barakaldon jokatzeko aukera suertatu zitzaidan eta joatea erabaki nuen. Izan ere, Barakaldo 2.B mailan beti ondo zebilen. Bi urte eman nituen bertan, oso gustura. Olabek gol kopuru zehatz bat sartzen banuen berriro Realera eramango ninduela agindu zidan, baina ez zuen bere hitza bete.

**Zein taldetan izan zara ordutik?**

Conquense, Alacant, Alcorcon, Logroñes, Jaen eta Beasain taldeetan jokatu dut.





Conquense taldearekin.



**Nola laburtuko zenuke 2.B mailan osatutako ibilbidea?**

Bigarren Mailara igotzen saiatzen zara, maila honetan ezagutzera emateko aukera handiagoa baita. 2.B maila oso lehiakorra da. Gauza onak eta txarrak ditu. Oso ondo ordaintzen zuten eta orain arte futboletik bizi izan naiz, baina orain beste lan bat aurkitu dut eta entrenamenduekin uztartu nahi dut. Beasaingo bulego batean lan egiten dut.

**Zer ikasketa egin zenituen?**

Nazioarteko Merkataritza eta Informatikako goi mailako bi ziklo.

**Zer moduz Beasainen?**

Bi denboraldi daramatzat bertan eta bietan play-offera sailkatzeko zorian izan gara: bietan bosgarren postuan gelditu gara. Aurten sei gol sartu ditut. Titular hasi nuen denboraldia, baina denboraldi

amaieran gutxiago jokatu dut. Beasainen jarraitu behar dut.

*“Nire dohain nagusiak gol sena eta abiadura dira.*

*Horiek ez galtzea espero dut. Bestela, atzelari jokatu beharko dut...”*

**Abiadura al da oraindik zure dohain nagusia?**

Abiadura eta gol sena. Arma horiek ez galtzea espero dut. Bestela, atzelari jokatu beharko dut... Dena den, urteekin baliabide gehiago lortzen dira.

**Futbolean luzaroan aritzeko asmoa al duzu?**

30 urte ditut, baina ondo sentitzen naiz. Lesioek uzten badidate urte asko jokatzeke asmoa dut. Futbola da bizitzan gehien gustatzen zaidana eta asetzen nauena. Bizitzan gauza garrantzitsuagoak daude, baina futbolaren mende nago. Oso argi dut uztea gogorra egingo zaidala eta buruari buelta asko emango dizkiodala.


**Entrenatzaile asko jokalaria ohiak dira.**

Nik ez dut lan hori atsegin.

**Zein da zugan eragin handiena izan duen entrenatzailea?**

Realean izan nintzenean Roberto Lopez Ufarte asko gustatu zitzaidan, futbola ikusteko zuen moduagatik eta jendea ondo tratatzen zuelako. Askok inplika-tzen zen.





Alex Areizaga

Informatika

[www.kunkkinzona.net](http://www.kunkkinzona.net)

Hilabete honetako gomendioan auto-propaganda pixka bat egiten utziko didazue. Izan ere, pasa den astetik aurrera martxan da jada [www.kunkkinzona.net](http://www.kunkkinzona.net) webgunea. Gaztetzeko eta kkinzonako gazteek sortua weblog honetan gazteen intereseko kontuak, albisteak, gaztetzexan izandako ekintzak, bideoak, argazkiak, agendako kontuak edota irratsaio zaharrak aurkituko dituzue beste sorpresa askoren artean. Irratsaioetako esatariekin zuzenean hitz egiteko Txat-a ere badago eta laster irratia sare bidez entzuteko aukera ere gehituko diote ataritari. Gazteen eta ez hain gazteen artean erreferentzia izan nahi duen webgunea, beraz, martxan dago jada.



Oihane Sudupe

Osasuna

### Aromaterapia

Aromaterapia herborio zientziako adar bat da (grekotik aroma "lurrin" eta therapia "sendaketa"). Antzinako arte bat da eta diziplina honen jarraitzaileek lurrinei erabileraterrapeutikoa atxikitzen diete; gure organismoaren oreka eta harmonia bereganatzen laguntzen baitigute. Landare-olio kontzentratuak erabiltzen dira eta hauek azalean jarriaz lortzen dira onurak, usaimen zentzuari ere garrantzi handia emanez. Talde zientifiko zein medikoek ez dute onartzen aromaterapiaren mekanismo sendagarria eta pseudozientzia gisa tratatzen da. Izan ere, arte honek ahalmen sendagarria duela erakusteko azterketa zientifiko zein kliniko zorrotzak gainditu beharko lituzke. Funtsezkoak ez diren ebidentzietan eta pentsamendu magikoan oinarrituta omen dago aromaterapia. Garrantzitsuena zentzuz erabiltzea eta zein helburutarako erabili nahi ditugun garbi izatea da.



# Abereen zirkoa

Jones jaunak, Krisiston zirkoaren jabeak, berak eta bere-ek bapo bazkaldu ondoren ematen zien jaten eta edaten abereei. Pon Pon aurreko hanken parean jartzen zion pozale urdina: pipita gehiegi zituen meloi-hondarra, laranja-azal mordoa, txitxirioak, azal lodidun patata kiloa eta identifikatzeko zailak izaten ziren beste hainbeste soberakin.

Orduko hartan aspaldian beti bezala itzalean lotu zuen. Pribilejio hori eman zioten urteek, zaldien artean zahar-  
txoena zen, eta zirkoan jarduteko erakutsitako dohainek. Gainera, zaldiek ez dute inoiz ikasi fundamentuz arrantza egiten; eta isilik egoteak zenbat balio duen...

Herriaren bukaera iradokitzen zuen tabernako terrazatik hurbil zegoen lotuta, biluztu zuen arbolatxo bati. Jones andrea siestan egongo zen senarraren zain. Arropa gutxirekin, ziur aski, hura ere; bestela nola esplikatu senarraren presa: "To, Pon Pon! Gaur ere nik emandako dena jan behar gizagaixo horrek!", ipurdi gainean bi kolpe, aspaldiko adiskideei egiten zaien moduan, eta ospa egin zuen Jones jaunak.

Esaneko zaldia zen Pon Pon eta pozaleko dena bakarrik ez, hurrizaren hostoak, tabernako bezeroek utzitako oli-bak... Jaten hasita, hurrizera lotzen zuen soka parean tokatu zitzaionez, hura ere karraskatu egin zuen. Nork jakin, biharamuna esku hutsik etor zitekeen.

Jones jauna, Krisiston zirkoaren jabea, siestatik jaikitze-rako, ez zuen Pon Pon haren itzalera lotzen zuen ezer. Pozale urdina hustuta zuen ordurako gainera. Beraz, ez zitzaion ondo iruditu hurrizaren itzalean otzan-otzan etzanda jarraitzea. Libre zegoen eta libertatea praktikatu behar zuen. Aldatu beharko zuen zerbait errotik. Zirkotik alde egin eta bertan lanik egin behar izango ez zuenez, izango al zuen bere bizitzan egin beharreko aldaketan pentsatzeko astia!

Batzuetan gauzak berez etortzen dira; gutxitan. Egia da Pon Pon ihesaldia ia konturatu gabekoa izan zela, oztopo handirik gabea: bestela lehenago amore emango

zuen. Espaloia zegoen tarteetan, handik egiten zuen bidea. Espaloia bukatzen zenean, errepidean sartzen zen. Aukera zuen guztian bide ertzeko belarra zapalduz, trostan, egiten zuen aurrera: ez zuen oinetako ferrak ferratuko zizkion inor. Hala ere, ez da gezurra Krisiston zirko kamioietan errazago egiten zirela kilometroak.

Animatzen zuten autoetako bi hankadunek: batzuek bozina jotzen zioten, beste batzuek abiadura murriztu eta argazkiak ateratzen zizkieten zaldiari. Herrietan sartzen zenean, hurrek, gazteek, ez hain gazteek eta gazte izandakoek txaloz hartzen zuten. Balkoiak palko bihurtzen ziren, bertako bi hankadunak zapi zuriak astinduz.

Bera luze etzateko bezain handia zen larre berdea bilatzen zuenean, geratu egiten zen, soilik orduan. Pozale urdinaren zain egoten zen pixka batean. Baina Jonestarrekin ez zegoenetik ez zitzaion pozale urdinik iristen. Burua makurtu eta belarrari heldu behar izaten zion. Jin, jan eta, segituan, joan; ez zuen besterik egiten. Etzateko tarterik hartu gabe, badaezpada ere.

Etengabeko joan horrek nondik zetorren eta non zegoen ez jakitera eraman zuen. Aurkituko zutela pentsatzen zuen. Jones jaunak Pon Pon buruari, bizirik edo hilik, prezioa jarriz gero, topatuko zuen norbaitek. Gauzak horrela, mesfidati, segi eta segi baizik ez zuen egiten zaldiak, "nire hanken gainean ez dabilen guztia etsaia da".

Oraindik hemen inguruan bueltaka omen dabil. Muturra karraskatuta duen soka lepoan lotuta, zintzilika duela. Krisiston zirkoa egongo den herrian azaltzen da hura iritsi baino egun pare bat lehenago. Arrantza-irrintzika, Jonestarren zirkoaren iragarle da, nahi gabe. Animaliek hitz egiten zuten garaian bizi izan balitz, agian, beste era batera kontatuko zatekeen istorioa.

*Amaia Artolazabal Amilleta*



### Jon Cadierno

Ekainaren 19an Jon Cadierno zumarragarrik bere lehen liburua aurkeztu zuen Zelai Arizti kultur etxean: 'Minutus creatio'. Cadierno 14 urterekin hasi zen istorio laburrak idazten eta bere lanak lehiaketetara aurkezteko ohitura du. 2006an lehen liburu honetarako hautatu duen 'Lur azpian' lana Urruzuno lehiaketan saritu zuten eta 2007an bigarren saria lortu zuen Zumaiako Azkue lehiaketan. 'Minutus creatio' lau lanek osatzen dute: euskarazko 'Lur azpian' eta 'Amaiur etxeko kontu-kontariak' eta gaztelerako 'El circo' eta 'Lágrimas, confesiones y perfume barato'.

#### Zer izan nahi zenuen umetan?

Izozki saltzailea eta tren geltokiko langilea.

#### Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Dantzatu, musika entzun, irakurri, idatzi, igeriketa, Interneten saltseatu...

#### Bizitzeko toki bat?

Donostia, adibidez.

#### Gustuko euskarazko liburua?

Anjel Lertxundiren *Azkenaz beste*.

#### Gustuko euskarazko idazlea?

Harkaitz Cano.

#### Gustuko gaztelerazko liburua?

Carlos Ruiz Zafón-en *El juego del ángel*.

#### Gustuko gaztelerazko idazlea?

Carlos Ruiz Zafón.

#### Prosa ala poesia?

Prosa. Azken bolada honetan poesian murgildu naiz, baina zailagoa egiten zait.

#### Zein gai atsegin dituzu?


Gai asko daude. Hasieran guztiontzeako ezagunak diren gaien buruz idazten nuen: eguneroko bizitza, gaztaroko esperientziak... Pixkanaka gai berriak landu ditut: maitasuna, homosexualitatearekiko errepresioa, bizitza, heriotza...

#### Ileheriak ala beltzaranak?

Eta ilegorriak zergatik ez?

#### Egindako azken oparia?

Liburu bat: *La mecánica del corazón*.



#### Eta jasotakoa?

Liburu bat argitaratzeko aukera.

#### Data bat?

Abenduaren 31, urtean zehar gertatuko guztiaren errepassoa egiten dudanean.

#### Mutil eta neska izen bana?

Adrian eta Gabriela.

#### Zein egunkari irakurtzen duzu?

*El País* gustatzen zait.

#### Gustuko telebista saioa?

*El Intermedio*, dudarik gabe.

#### Bereziki gorroto duzuna?

Jesús Callejak aurkeztzen duen *Desafío Extremo*.

#### Pelikula bat?

*Slumdog Millionaire*.

#### Abesti bat?

*Bad Romance*, Lady Gagarena.

#### Musika talde bat edo musikari bat?

The Script eta Justin Timberlake.

#### Soinu bat?

Pianoarena.

#### Usain bat?

*Kafea eta tostadak*.

#### Janari bat?

Aitaren paella eta amaren kaneloiak.

#### Ura ala...

Laranja zukua.





# Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Tf. 943 72 05 11  
Fax: 943 72 44 10  
E-mail: mendiola@cmendiola.com  
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza  
Industria pabilioiak  
Urbanizazio lanak



Dena  
astroago  
doan garaian




# Gipuzkoa, bizkor

## Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihsabide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihsabidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.



**GIPUZKOA**

zurekin, aurrera >>